

HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2026ko otsailaren 3ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko otsailaren hiruan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki

Ahalordeak: DACHAGUER Peio, LEKUMBERRY Xantxori

Saioko idazkaria: PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 30aa

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 30a

3. ERABAKIA: ARROSATEGIA ETXKO GELEN ALOKATZE SALNEURRIEN ALDATZEA

-

(7.1 nomenklatura)

Auzapezak adierazi du 2020ko maiatzaren 23ko erabakiz, Herriko Kontseiluak delegazioa eman ziola gauzak alokairuan ezartzeko. Haatik, delegazio hark ez du balio honako erabakiarentzat.

Auzapezak oroitarazi du Arrosategiko gelen alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 7ko bilkuran erabaki zirela. Herri Biltzarrari proposatu dio salneurriak aldatzea.

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio herriak eraberritze lanak egin dituela Arrosategia eraikinean eta lehen solairuan 4 bulego egin dituela alokatzeko:

- Santri gela: 12 m²
- Burkai gela: 17 m²
- Antzeta gela: 27 m²
- Kaxin gela: 12 m²

eta bigarren solairuan bilkura gela bat:

- Laka gela: 62 m²

Gelak alokairuan eskaintzea nahiko luke eta Herri Biltzarrari galdegin dio alokairu salneurriak eta baldintzak finkatzea. Zehaztu du osasun arloko profesionalak aloka ditzaketela lehen eta bigarren solairuko gelak. Osasun arloko profesional horiek hauta dezakete gela bat erabiltzea aste oso batez eta soilik egun batzuek.

Proposatu du m² bakoitzeko eta egun-erdi bakoitzeko hilabetean 2,56 euroko prezioa ezartzea osasuneko profesionalentzat astean zehar. Osasun arloko profesional batek gela aste oso batez alokatzen badu 11 egun-erdi hartuko dira kontuan.

Bestalde, bigarren solairuko Laka gela elkarteek eta enpresek alokatzen ahalko dute.

Laka gelaren alokatzeari dagokionez, Auzapezak proposatu du 2022ko martxoaren 1ean onartu zen gelen (Denen Etxea eta Jantokia) alokatzeko salneurrien taula eguneratzea

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

HONELA FINKATU DU: osasun arloko profesionalentzako egun-erdi eta m² bakoitzeko alokairu saria.

HONELA FINKATU DU: enpresa, elkarte eta partikularrei gelen alokatzeko salneurriak, honako taularen arabera:

	Denetzako gela	Jantokia	Arrosategiko Laka gela
<u>Bertako enpresa eta elkarteak:</u> - bilkurak, aperitifak, harrerak, askariak, bazkariak (*)	Urririk	Urririk	Urririk
<u>Herririk kanpoko elkarte, partikular eta enpresak:</u> - Bilkurak - aperitifak eta harrerak - Apairuak	Egun osoa: 100€ Egun erdia: 50€ 150 € + 150€ko gordailua		Egun osoa: 100€ Egun erdia: 50€
<u>Bertako partikularrak:</u> - aperitifak, harrerak, askariak, - apairuak	50€ 100€ + 150€ko gordailua	250€ + 250€ko gordailua	

(*) Bertakoek gela bat erabiltzen badute baina xede profesional batekin edo irabazi asmo batekin partehartzaileek ordainduta, alokairua herritik kanpokoentzako ber baldintzetan eginen da.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12
Adierazi diren bozkak: 13 (12 presente eta ahalorde 1)
ALDE: 13
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko otsailaren 3a
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2026ko otsailaren 5ean argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.